BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4560

EBAZPENA, 2014ko urriaren 17koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Emakumeen aurkako Indarkerian Esku hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala egiteko aurreikusitako laguntzak ematea ebazten eta argitaratzen duena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2014ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez (2014ko ekainaren 19ko EHAA, 115. zk.), Emakumeen aurkako Indarkerian Esku hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala egiteko laguntzen deialdia egin da. Aipatu ebazpenaren 13. artikuluak hauxe dio: «Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu eskaerak, diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera; ondoren, bere proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari. Horrek ebazpen adierazia emango du. Ebazpen horrek amaiera emango dio lehiaketari eta diru-laguntza nori eman eta nori ukatu zaion adieraziko du. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei. Orobat, emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jendeak horren berri izan dezan».

Adierazitako guztia eta Hautaketa Batzordearen proposamena kontuan izanik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Emakumeen aurkako Indarkerian Esku hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala egiteko laguntzak ematea eranskinean zerrendatutako pertsonei, bertan adierazitako banakako zenbatekoetan.

Bigarrena.– Diru-laguntza zatika ordainduko da: laguntza emateari buruzko ebazpena ematen denean, diru-laguntzaren % 75 ordainduko da; gainerako % 25a, berriz, Deustuko Unibertsitateak bidali beharreko jarraipen-txostena jasotakoan, onuradunen lehenengo ikasturteko lehen seihileko asistentziari eta aprobetxamenduari buruzko jarraipen-txostena, alegia. Hori guztia, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2014ko ekainaren 6ko Ebazpenaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala xedatuta baitago uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3. artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 17a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

ERANSKINA

Onuradunen zerrenda	Zenbatekoa
1.– Naiara Modenes López	3.032,40
2.– Cristina Castrillo Pinto	3.032,40
3.– Samira Raiss Boufarcha	3.032,40
4.– Maria Margarita Cano Arregi	3.032,40
5.– Leire Manjon Dorronsoro	3.032,40
6.– Ana Unzaga Galnares	3.032,40
7.– Jennifer Fernandez Ruiz	3.032,40
8.– Elena Jorge Ruiz	3.032,40
9.– Ana Belen Alvarez Casal	3.032,40